

Itziar Zubizarreta OEPLI Espainiako Haur Liburuen Erakundeko lehendakaria

Nik uste dut 'playstation'-ak eta irakurketa elkarren osagarri direla

J.L.Z. Donostia

Ordizian (Gipuzkoa) jaio bazen ere (1952an), donostiartzat dauka bere burua Itziar Zubizarretak. Hizkuntzaren eta haur literaturaren didaktikan, eta haur eta gazte literaturarekin zerikusia duten era askotako ekimenak antolatzen aritua eta aditua da, baita ipuin kontaketa ere. Duela lau urte izendatu zuten OEPLI Espainiako Haur Liburuen Erakundeko lehendakari, Galtzagorri Euskal Haur eta Gazte Literaturako Elkartearen ordezkari gisa. IBBY Haur Liburuen Nazioarteko Erakundearen ordezkaria da OEPLI.

Zeintzuk dira IBBYren zeregin nagusiak?

Guretzat interes handia duten ekimen batzuk bultzatzen ditu IBBYk. Bi urtetik behin oso biltzar garrantzitsua antolatzen du, munduko profesionalik bikainenak bilduz, eta horrek aukera ematen digu haiek ezagutu eta kontaktuan jartzeko; aurtengo uztailan Donostian egingo dugun Haur eta Gazte Literaturako IV. Iberiako Biltzarreko hizlarietako batzuk biltzar horietan ezagutu ditugu. Beste sari batzuek gain, Andersen sariak antolatzen ditu IBBYk, haur eta gazte literaturaren arloan dauden garrantzitsuenak, oso prestigio handikoak; Mariasun Landa sari hori irabazteko hautagai izendatzea lortu dugu, eta laster jakingo da erabakia. Ohorezko zerrenda bat ere egiten du IBBYk, ehun liburukoa, bi urtetik behin berritzen dena, eta azken lau urteetan euskarazko bost liburu egon dira zerrenda horretan; zerrenda hori mundu osoan zabaltzen da, eta oso erabilia da itzulpenak egiteko.

IBBYren barruan dago OEPLI, zu lehendakari zaituen erakundea; eta OEPLIren barruan Galtzagorri. Zer asmorekin sortu zen Galtzagorri, eta zertan ari da lanean?

Galtzagorri batez ere irakurketa sustatzeko asmoz sortu zen, eta urte asko daramagu horretarako ekimenak lantzen. Zeregin horretan haur liburuaren inguruan lanean ari garen gremio edo profesio guztietako jendea batzen gara Galtzagorri: idazleak, ilustratzaileak, editoreak, ipuin kontalariak... Mezu alarmistak entzuten dira maiz: haur eta gazteek irakurtzeko gero eta joera gutxiago dutela, gero eta zailagoa dela irakurzaletasuna sustatzea... Playstation-ek irakurketari lekua kendu diotela esaten dute. Ni umea nintzen garaian ez bezala, orain umeek oso denbora gutxi egiten dute etxetik edo ikastetxetik kanpo, kalean edo etxe atarian. Baina inork ez du esaten playstation-ek kaleari lekua kendu diotela; bai, aldiz, irakurketari kendu diotela. Nik ez dut uste hala denik. Nik uste dut playstation-ak eta irakurketa elkarren osagarri direla. Etxean eta eskolan, oso txikitatik, isilune batzuk egin behar dituzte haurrek, eta isilune horiek dira literaturari eta literaturari esker sortzen den komunikazioari eman behar dizkietenak.